

USTELKERIARI EZ!, CAN AUZIA HEMEN IKER DADILA NAHI DUGU, BARCINA DIMISIOA

Ez dakit zenbat jende bildu garen hemen gaur. Ziur aski, norbaitek esango du guk esaten dugun kopuruaren erdia bildu garela. Baina hori ez da garrantzitsuena. Hauxe da garrantzitsuena: zergatik bildu garen eta zer esan nahi duen hemen bildu izanak...

Gaur, herritar libre gisa bildu gara, sigla, diskurtso, nortasun edo sinesbideen gainera, justizia exijitzeko dugun eskubidea gauzatzeko. Eta eskubide hori inork baino gehiagok zor digunei exijituko diegu, hau da, guk hautatu ditugulako gure gobernatzaileak direla esaten duten horiei... izan ere, hori ere, barcina andrea eta upn, pp eta psnko jaun-andreak, hori ere demokracia da. Demokraziaren oinarria da, hain zuzen!

Ez gara herritar bihurriak, presidente andrea, ez gaude hemen lageak horretara premiatzen gaituelako. Ez gara ezkututzen diskurtso alderdikoien atzean, ez gara gure ardurak, gure erantzukizunak saihesten saiatzen... etorri gara esatera, argi eta garbi, eta ozenki, joan zaitezela, dimisioa eman dezazula, duintasunez joka dezazula; bestela, lokaztuta utziko dituzu nafarroako erakundeak, eta lotsagarria izango litzateke hori gertatzea inputazioa zure gain hartu nahi ez duzulako. Zure erantzukizuna da... eta ez nafar guztiona!

Orain dela ia sei hilabete ere, kalera atera ginen. Nafarroako kutxan gertatutakoari buruzko egia eskatzeko atera ginen, zuek horri buruz ezer ez esateko sustatu zenuten itun lotsagarri horren aurka egiteko, hau da, parlamentuan ikerketa-batzordea egiteari uko egiteko hartu zenuten erabakiaren kontra egiteko atera ginen, finantza-autonomiako gure tresna nagusiaren desagertpenaren nondik norakoa ezagutzeko genuen eskubidea aldarrikatzeko atera ginen... ia sei hilabete ondoren, eta epaile baten ausardiari eta gurea bezalako elkarte xume baten adonari esker, badakigu zer gertatu zen eta ulertzen dugu zergatik zuek, azken urteotan nafarroako kutxan zein nafarroan boterean egon zareten horiek, nahi zenuten ezkutatu: zuek zaretelako, egiteagatik edo ez egiteagatik, nafarroako kutxaren desagertpenaren erantzuleak.

Orain dela sei hilabete, egia jakin nahi genuen. Gaur, justizia eskatzen dugu. Erantzukizunak argitzeko eta banatzeko ordua da, eta nafarroan egitea nahi dugu. Izan ere, nafarroan gobernatu duzue zuek, nafarroan hartu zenituzten zuek orain denok ordaintzen ari garen erabakiak, nafarroan eman nahi izan zenituzten etika-lezio horiek, zuen jokabideengatik ironia mingarriak diren horiek... aski esateko ordua heldu da, errespetua exijitzeko ordua heldu da, gure eskubidea aldarrikatzeko ordua heldu da: justizia.

Presidenteak bere karguak eskura jartzen dizkion pribilegioen atzean ezkutatu nahi du, eta, horrela, protagonismoa lapurtu dio bere duintasuna defendatu duen nafar gizarteari. Nafarroako kutxan hasi baina gaur egun ere ematen ari diren zitalkerien epilogoak izan da hori: murrizketak egitea gizarte arloan, zerbitzu publikoak desartikulatzea, herritar gehienek agindua aintzat ez hartzea, nork bere erantzukizunak ez hartzeko itunak egitea... barcina andrea, ustelkeria leporatuta inputatu behar zaituzte, hori saihestezina da, baina boterearen besaulkiari eusten diozu, lurralde honek sufritzen jarraitzen duen bitartean. Ikerketa madrileran eraman nahi duzu, eta zera lortu nahi duzu: zure aliatu politikoek edo auziz beteriko agenda judizialak auzia moteldu edo, agian, etenaraztea. Zure onurarako ari zara aprobetxatzen pribilegioak!

Ez dizugu ukatzen zeure burua defendatzeko duzun eskubide legitimoa, zure errugabetasun-presuntzioa ere errespetatzen dugu eta aukera ematen dizugu frogatzeko legearen arabera jokatu zenuela. Baina gainerako herritar nafarrek egin beharko genukeen modu berean egin dezazula exijitzeko bildu gara hemen: pribilegiorik gabe eta nafarroako epaitegien aurrean, hemen hartu baitzenituen erabakiak, hemen gauzatu baitzenituen erabaki horiek, hemen sinatu baitzenuen nafarroako kutxaren heriotza-agiria eta hemen jaso baitzenituen dietak eta opariak... labur esanda: nafarroako epaitegien aurrean ematea kontuak.

Gauza bakar batek ekidin dezake iruñean hasitako auzia madrilen ez bukatzea: barcinak gobernuko presidentea izateari uztea, herritarrok aldi batera eman genion karguan jarraitzeari uztea. Gaur, tribuna honetatik, dimisioa eman dezala eskatzen diogu, duintasunagatik, baina ez bere duintasunagatik, gure duintasunagatik baizik. Dagokion tokian, nafarroan, defenda dezala bere burua eskatzen diogu.

Urtebete igaro da nafarroako kutxa finantza-erakunde gisa desagertu zenetik, eta horrek atsekabe eman die nafarroako herritar gehien-gehienei; baina, dirudienez, zuei, desagerpena ahalbidetu zenuten horiei, ez dizue bat ere atsekaberik eman, ez baituzue fitsik ere esan, ez baituzue barkamena eskatu. Baina, noski, atsekabetuko bazinete nafarrak krediturik, hots, finantza-autonomiarik gabe utzi izanagatik, horrek ekarriko luke erantzule politikoak zaretela onartzea, eta zuk, presidente andrea, argi eta garbi erakutsi duzu ez zaudela hori egiteko prest. Zuk ikusi, baina jakin ezazu, lehenago edo geroago, errealitateari aurre egin beharko diozula, eta errealitate horretan gu, alikatatzaileak, langileak, langabeak, herritar anonimoak..., gara eragile nagusiak.

Eta, agian, hemengo irudiari erreparatu beharko zenioke, etorkizunaren irudia baituzu aurrean: batasuna, bidegabekeriarri aurre egiteko; senidetasuna, erasoei aurre egiteko; elkartasuna, abusuei aurka egiteko... lurralde hau kudeatzeko beste modu bat posible delako: bertakoei aditzea.

Eta horixe da balio duen sentipena. Irudi itxaropentsua, zure harrokeriaren gainetik hedatzen dena. Barcina andrea, agian muzin egingo diozu jendeak eskatzen dizunari, agian ez zara ahaleginduko zuk uste baino askoz pluralagoa den gizarte hau nolakoa den ulertzen, agian botereari eusten jarraituko duzu, again pentsatuko duzu ezer ez dela aldatuko... horrela jokatzen baduzu, okertu egingo zara berriro, dena aldatzen ari baita, eta hemen ikusten duzuna, presidentea andrea, horren froga da.

Halaber, susmoa dugu gizabidezko ekitaldi honekin bat egin nahi izan ez duten batzuek betiko justifikazio eskizofrenikoa baliatuko dutela, bereizketa identitarioaren diskurtsoa baliatuko dutela, hau da, “que vienen los vascos” leloa baliatuko dutela berriro ere azpikeriak estaltzeko. Baina politika egiteko modu hori zaharkitua dago. Izan ere, hemen dauden askok eta askok sentsibilitate hori izango dute, bai, baina ez beste askok. Oker daude uste badute bereizten gaituenak ekarri gaituela hona; alderantziz, batzen gaituenak ekarri gaitu, erantzukizunak hemen, nafarroan, gobernatu duzuen gizartearen aurrean, gain hartu behar dituzuelako usteak, alegia.

Hain zuzen ere, ekitaldi honetan lortutako batasuna da zuek ikasi beharko zenuketen lezioa. Jarrera hori errespetatu beharko zenukete, eta zuen interes alderdikoien aurrean jarri beharko zenukete. Konturatu gara, bai, zuek identitatea erabiltzen zenuten bitartean gu aurrez aurre jartzeko, lurralde honetako kutxa, letra larriz, eta kutxak, letra txikiz, husteko aprobetxatu duzuela, bai eta bere autonomia mugatzeko ere. Zuen esku dago horri buruzko hausnarketa egitea.

Baina ez duzu manifestu hau bukatu nahi etorri ez direnak gogoratzuz, baizik eta etorri zaretenak eta etorri gabe ere lagundu digutenak goraiatzuz. Txalo bero bat zuentzat guztiontzat. Gure esker ona duzue. Izan ere, zuen laguntzari esker eta egia jakiteko erakutsitako konpromisoari esker lotu baita orain arteko guztia. Eskerrik asko emandako duintasun-lezioagatik. Baina garrantzitsuena etortzeaz dago: errespetua eskatzen duen zure jarrera legitimo eta etengabe horrek lortuko du, lehenago edo geroago, hamarkada tamalgarri honetan gertatutakoa ez errepikatzea berriro nafarroan.

Horixe da gure konpromisoa, horixe da gure promesa.

Eskerrik asko denoi, zinez

